

LUPAREKID
Juan Cruz Lakasta

KAZETARIA

Pospolo umelak

F

iskaltzak bi eta lau urte bitarteko espetze zigorrak eskatu ditu *Iruñerria piztera goaz!* kanpainen parte hartu zuten hamalau gazterentzat. Zigor eskaera ikusita, pentsa liteke kanpaina piromano talde batek antolatu zuela eta Iruñerria osoari su eman ziotela. Foru hiriburuko zahar-etxeak, haurtzaindegiak, erietxeak erre zituztela, zaharrak, haurrak, eriak barruan zirela.

Kanpaina, jakina, ez zen halakoa. Aitzitik, kontzientziak besterik ez zituzten piztu nahi. Autogestioa, gaztetxeak, lokalak aldarrikatu nahi zituzten, betiere desobedientzia zibil, publiko eta ez bortitzaren bitartez. Aurtengo maiatzean, udal hauteskunde kanpaina egiten zuten bitartean, gazteotako batzuk garabi batera kateatu ziren San Agustin karrikan, Euskal Jai Gaztetxea zegoen orubean, Udalak eraiki nahi duen zentro hidrotermaleko lanetan. Beste bik Labrit aldapan trafikoa moztu zuten, besoak elkarri kateatu, hormigoiz beteriko bidoi baten barruan.

Poliziak kateatu ziren gazteak ez ezik, sostengu keinu moduan haien alboan modu baketsuan eseri zirenak ere atxilotu zituen. Eta fiskaltzak antza guztiak espeteratu nahi ditu. Oraingo, haietako hamalaurerentzat bi eta lau urte bitarteko espetze zigorra eskatu du. Eta atxiloturiko beste 53 gazte oraindik zigor eskaeraren zain dira.

Egoeraren larritasuna gardenkiago, gordinkiago azaltze aldera adibide zehatz bat: M.-k, 28 urteko erizain iruindarrak bi urte eta erdi igaro ditzake espetxean besterik gabe udaltzainen aitzinean modu baketsuan esertzeagatik.

Fiskalak zigor eskaera egin du, baina ez dago fiskalarentzako zigor eskaera eginen duenik. Pena da. Izan ere, bistan da zigor eskaera bidegabea egin duela, irizpide juridikoen gainetik politikoak lehensiz, zigor eredugarria bilatzeko xedearekin. Funtzionario, epaile, fiskal batek haren lana jakinaren gainean gaizki egitea prebrikazioa da. Eta gainera kasu honetan bada larrigarririk:



MIKEL SAIZ

abuztukotasuna. Izan ere, lege-hausteak gaez egitea, gauekotasuna, larrigarria bada, halako eskaera bat abuztuaren erdian plazaratzea, ahalik eta oihartzunik txikiena izan dezan, zalantzarik gabe larrigarri behar da izan.

M. poliziaren aitzinean esertzeagatik bi urte eta sei hilabeteko kartzela zigorra jasotzear izateak agerian uzten du justizia sistema usteldurik dagoela, errotik gainera. Baina nago ez dela hori M. eta haren kideak dauden kinka larrira eraman dituen faktore bakarra.

Desobedientzia zibil, publiko eta ez bortitza egiten dutenek badakite agintarien jardura, legeak, justizia sistema ustelak direla. Haien protesten

bitartez hain zuzen ere horixe utzi nahi dute agerian. Eta haien kalkuluetan sartzen da zigorraren neurrigabekeriak herritarren kontzientziak piztuko dituela. Zigorra, justizia sistema, agintarien jardura aldatzeko eskaera piztuko duela.

Nago egun ez dela hala gertatzen. Fiskalak zigorra abuztuan eman du ezagutzera. Baina urrian edo martxoan egin izan balu ez dut uste deus aldatuko zenik. Nekez pizten da ezer gure bazter hauetan. Are gutxiago kontzientziak. Eta gizarteaz oro har ari naiz, baina baita —eta bereziki— irakurle txit desobedientziazalea zaren horretaz

eta biotaz. Gutaz.

Hotz gabiltza. Asko jota, epel. Betiere, pizteke. Agian, piztuezin. Ongi dakite hori Iruñerria piztu nahi zuten gazteek. Edo Julio Villanueva solidarioak. Milaka euskal herritar ederki berotu ginen Juliok eta bere kideek Itoizko urtegiko erakuntza lanetako kableak moztu zituztelarik.

Hamaika urte sasian igaro eta gero Julio espeteratu dutelarik, 200 besterik ez dira elkartu Iruñeko San Roque kaleko espetze zaharraren aitzinean. Pospolo umel bilakatu gara. Euskal gizarte mugimendu sare gartsua pospolo umel kutxa bilakatzen ari da. Gure kutxaren umeltasun epelean ahalik eta lasterren aztertu beharko genuke zergatik, lehortu ahal izateko,

berriz piztu ahal izateko. ■

Hamaika urte sasian igaro eta gero

Julio espeteratu dutelarik,

200 besterik ez dira elkartu

Iruñeko San Roque kaleko

espetze zaharraren aitzinean.

Pospolo umel bilakatu gara

